# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

KULTURA-SAILA


1984.eko Ekainaren 5eko AGINDUA, "ABAO" izeneko Norbanako Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz. 2937

1984.eko Ekainaren 5eko AGINDUA, "Bilboko Gaztedi Musikazaleak" izeneko Norbanako Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz. 2938

1984.eko Ekainaren 5eko AGINDUA, "ERDU" izeneko Norbanako Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz. 2939

1984.eko Ekainaren 5eko AGINDUA, "Agrupación Coral Ondarreta" izeneko Norbanako Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz. 2940

1984.eko Ekainaren 5eko AGINDUA, "EL SITIO" izeneko Norbanako Jabetzapeko Kultura-Elkartea onartu eta Kultura alorreko Iraskundeen eta Antzerako Erakundeen Erroldean sartuz. 2941


DEPARTAMENTO DE CULTURA


ORDEN de 5 de Junio de 1984, por la que se reconoce e inscribe la Asociación Cultural Privada "ABAO" Asociación Bilbaina de Amigos de la Opera, en Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas. 2937

ORDEN de 5 de Junio de 1984, por la que se reconoce e inscribe la Asociación Cultural Privada "Bilboko Gaztedi Musikazaleak", en el Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas. 2938

ORDEN de 5 de Junio de 1984, por la que se reconoce e inscribe la Asociación Cultural Privada "ERDU", en Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas. 2939

ORDEN de 5 de Junio de 1984, por la que se reconoce e inscribe la Asociación Cultural Privada "Agrupación Coral Ondarroeta", en el Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas. 2940

ORDEN de 5 de Junio de 1984, por la que se reconoce e inscribe la Asociación Cultural Privada "EL SITIO", en el Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas. 2941


# Iragarpenak
# Anuncios

LEHENDAKARITZA ETA ZUZENTZA-SAILA


Mikroelektronika eta Informatika-alorretako Hezkuntza-Sailaren egitarauari dagozkion hainbat sistema izendatzeari buruzkoa. 2942


GIPUZKOAKO FORU-DIPUTAZIOA


Toki-Ogasunen baliapideak sendesteari buruzko Ekainaren 5eko 5/1984 Foru-ARAUA. 2942


DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA Y JUSTICIA


ANUNCIO referente a la adjudicación de diversos sistemas en el subprograma de microelectrónica e informática del Departamento de Educación. 2942


DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA


NORMA Foral 5/1984, de 5 de Junio, sobre reforzamiento de recursos de Haciendas Locales. 2942


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**KULTURA-SAILA**

**1251**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Araupetzen dituen Azaroaren 25-eko 29/1983 Legearen hogeigarren artikulua garatzen dueneko 1984.eko ekainaren zortziko Kultura Saileko AGINDUA.

Azaroaren 25eko 29/1983 legearen hogeigarren artikuluak dioenez, Kultura Sailari dagokio, HABEren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, euskaltegi publiko eta pribatu homologatuetan ematen diren ikasketen ordenamendu oro-

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**1251**

ORDEN del Departamento de Cultura de ocho de Junio de 1984, por la que se desarrolla el artículo vigésimo de la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis.

El artículo vigésimo de la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre dispone que corresponderá al Departamento de Cultura, a propuesta del Patronato Rector de HABE, la ordenación general y la inspección de las enseñanzas que se impartan en

korra eta inspekzioa, euskaltegi hauetako irakaslegoak behar duen titulazioa, euskaltegietarako erabiltzen diren lokalek bete beharko dituzten baldintza teknikoak eta oro har irakaskuntzari buruzko guztia arautzea.

Era berean, euskalduntze eta alfabetatze irakaskuntzan egingo den ikastaldi bakoitzaren ondoren eman daitezkeen Diploma eta Agiriak arautzea aipatutako Sailari dagokio.

Honen arabera eta HABEren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez

XEDATZEN DUT:

*1. Atala*

Behar bezala sailkatuta dauden Euskaltegietan, nahiz publiko nahiz pribatutan, alfabetatze eta euskalduntze ikasketak eman ahal izango dira.

Halaber, ikasketa hauek gainditu edota euskararen behar hain bateko maila iristen dutenentzat, hobekuntza edo prestakuntza teknikorako beste zenbait ikastaro edo programa ere antola dezakete euskaltegi hauek.

*2. Atala*

Euskalduntze saioen helburua, euskaraz hitzegiten ez dakitenak euskaraz irakurri, idatzi eta mintzatzeko gai bihurtzea da. Euskalduntze-prozesua lau mailatan egongo da banatua. Laugarren maila egin duten ikasleak Euskararen Gaitasun Agirirako azterketara bideratuko ditu HABEk.

*3. Atala*

Alfabetatze saioen helburua, euskararen erabilera zuzenerako prestatzea da eta era berrean euskaldunak hizkuntza horretan irakurri eta idazteko gaitasuna lortzea da. Alfabetatze-prozesua bi mailatan egongo da banatua: Bigarren maila egin duten ikasleak Euskararen Gaitasun Agirirako azterketara bideratuko ditu HABEk.

Lehenengo artikuluan adierazitako hobekuntza edo prestakuntza teknikorako era daitezen ikastaroen amaieran ere, kasuan kasuko agiria lortzeko azterketara bideratu ahal izango ditu HABEk bere ikasleak.

*4. Atala*

Orain arteko artikuluetan aipatu diren ikasketen edukiak eta horien ordu banaketa Glotodidaktika Taldeak egin eta Kultura Sailaren Aginduz onartuak izango dira, HABEren Batzorde Akademikoak aurrez bere informea emango duelarik. Agindu horretan xedatzen dena betetzea derrigorrezkoa da, aurreko artikuluetan aipatzen den Agiria eman ahal izateko.

*5. Atala*

1. Ikasleak, bai alfabetatze eta baita euskalduntze ikastaroetan ere, matrikulatzerakoan, Euskaltegiaren Zuzendariak, Talde Glotodidaktikoak ezarritako irizpideei jarraiki, jar ditzakeen frogak (ahozkoak edo idatzizkoa) egin beharko ditu.

2. Euskararen behar adineko ezagutza-maila frogatzen duten ikasleak, maila bat edo gehiago egitetik libre gera daitezke, matrikulatu nahi duten Euskaltegi Publiko zein pribatu

los euskaltegis públicos y privados homologados y la regulación de las titulaciones exigidas al profesorado de los mismos, así como las condiciones técnicas que deban reunir los edificios destinados a Euskaltegis y, en general, de todo lo referente a las actividades docentes.

Dispone asimismo que dicho Departamento regulará los diplomas y certificados a expedir al final de cada uno de los ciclos que se establezcan en las enseñanzas de alfabetización y euskaldunización.

En su virtud, a propuesta del Patronato Rector de HABE,

DISPONGO:

*Artículo 1*

En los Euskaltegis tanto en los públicos como en los privados debidamente clasificados podrán impartirse enseñanzas de euskaldunización y de alfabetización.

Asimismo, podrán impartirse en los mismos a los que superan dichas enseñanzas o dispongan del suficiente nivel de conocimiento del euskara, otros cursos o programas de capacitación técnica o de ampliación de conocimientos.

*Artículo 2*

Las enseñanzas de euskaldunización tendrán por objeto la enseñanza del euskara a los no vascoparlantes, a fin de capacitarles para la lectura, escritura y la utilización oral del euskera. HABE facilitará el acceso a los alumnos que superen este cuarto nivel a las convocatorias correspondientes del Euskeraren Gaitasun Agiria (EGA) —Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera.

*Artículo 3*

Las enseñanzas de alfabetización tendrán por objeto capacitar para la correcta utilización oral del euskara, así como para la lectura y escritura en dicha lengua, a los vascoparlantes. HABE facilitará el acceso de los alumnos que superen este segundo nivel a las convocatorias correspondientes del Euskeraren Gaitasun Agiria (EGA) —Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera.

Asimismo, en los casos señalados en el artículo primero referentes a los cursos de capacitación técnica y perfeccionamiento, HABE presentará los alumnos que cursen dichos cursos a los exámenes correspondientes en cada caso.

*Artículo 4*

Los contenidos de las enseñanzas a que se refieren los artículos anteriores así como su distribución horaria serán elaborados por el Gabinete de Glotodidáctica Aplicada y aprobados por Orden del Departamento de Cultura previo informe del Consejo Académico de HABE. Lo dispuesto en dicha Orden será de obligatorio cumplimiento a los efectos de la expedición del Diploma al que se refieren los artículos anteriores.

*Artículo 5*

1. Para matricularse en los cursos de alfabetización el alumno deberá superar las pruebas (orales y/o escritas) que establezca el Director del Euskaltegi siguiendo los criterios dictados al efecto por el Gabinete de Glotodidáctica Aplicada.

2. Aquellos alumnos que demuestren un nivel de conocimiento suficiente del euskara podrán ser eximidos de uno o más cursos, previa la superación de las correspondientes

homologatuetan eta Talde Glotodidaktikoak ezarritako irizpideei jarraiki, egingo zaizkien frogak gainditzen badituzte.

6. *Atala*

Agindu honetan aipatzen diren Euskaltegietan matrikulatzeko gutxienez 16 urte beteak izan behar ditu ikasleak.

7. *Atala*

1. Oso-osorik edo neurri batean, HABEren presupostuetatik ateratako diru publikoz mantentzen diren euskaltegi guztietan, honako ikasle-kopurua egongo da ikas-taldeko:

a) Euskalduntze saioetan gutxienez 12 eta gehienez 15.

b) Alfabetatze saioetan gutxienez 12 eta gehienez 25.

2. HABEren ikuskatzailetzak, talde txikiagorik edo handiagorik sortzea onar lezake, egoerak horrela eskatuko balu, eta beti ere salbuespen gisa.

3. Artikulu honetan xedatua ez betetzeak, Euskaltegiari izendatutako diru-laguntza kentzea ekarriko luke.

8. *Atala*

1. Euskaltegi guztiek, bai publikoak eta bai pribatu homologatuek, horrela onartuak izan eta HABEren Euskaltegien Erregistroan sartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez izan behar dituzte, 20 m²ko hiru gela, 30 m²ko aretoa eta 20 m²ko irakasle-gela. Eskola emateko erabiltzen diren gela guztiek, 20 m²ko izan behar dute gutxienez.

b) Higiene aldetiko antolamendu egokia, argitasuna, bentilazioa etab. izatea, Lurralde Osasun Zerbitzuek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko delarik.

c) Agindu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten 4 irakaslez osatutako irakaslegoa izatea. Irakasle hauetariko bakoitzak astean gutxienez 20 ordu lektibo eman beharko ditu euskaltegian.

d) Bere segurtasuna garantizatzen duten beharrezko baldintza teknikoak bete beharko ditu lokalak, Kultura Saileko arkitekto batek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko delarik.

e) Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak aipatzen dituen Gobernu Sailak osatuta izatea eta Euskaltegiaren Barne-Araudia honela badagokio.

f) Euskaltegirako erabiliko diren lokalen jabe izan dadila titularra edo jabe ez balitz izan dezala irakaskuntza etengo ez dela bermatuko duen tituluren bat. Hori behar bezala ziurtatuko duelarik.

2. Euskaltegia onartzen dueneko Aginduak zehaztuko du Euskaltegi horrek une berean izan dezakeen ikaslegoaren gehienezko kopurua.

pruebas que se efectuarán en el Euskaltegi Público o Privado homologado en que desee matricularse, siguiendo las directrices dictadas al efecto por el Gabinete de Glotodidáctica Aplicada.

*Artículo 6*

La edad mínima del alumno para matricularse en los Euskaltegis a que se refiere la presente Orden será de 16 años cumplidos.

*Artículo 7*

1. En todos aquellos Euskaltegis que estén total o parcialmente sostenidos con fondos públicos procedentes de los presupuestos de HABE, el número de alumnos por grupo será el siguiente:

a) En las enseñanzas de euskaldunización 12 como mínimo y 15 como máximo.

b) En las enseñanzas de alfabetización 12 como mínimo y 25 como máximo.

2. No obstante lo dispuesto en el número anterior la Inspección de HABE podrá autorizar con carácter excepcional grupos con un menor número de alumnos siempre que las circunstancias así lo aconsejen.

3. El incumplimiento de lo dispuesto en el presente artículo supondrá la revocación de la subvención concedida al Euskaltegi.

*Artículo 8*

1. Todos los Euskaltegis tanto públicos como privados homologados para ser clasificados como tales e inscritos en el Registro de Euskaltegis de HABE deberán cumplir con los siguientes requisitos:

a) Disponer de al menos tres locales de 20 m² como mínimo, de un salón de actos de 30 m² como mínimo y de una sala de profesores de 20 m² como mínimo. Todos los locales destinados a impartir enseñanzas deberán tener una superficie mínima de 20 m².

b) Reunir las condiciones higiénicas adecuadas, así como de luz, ventilación, etc., lo cual será acreditado mediante certificado expedido por los correspondientes servicios territoriales de sanidad.

c) Disponer de una plantilla de profesores (4 como mínimo) que cumplan con los requisitos de titulación exigidos por la presente Orden. Cada uno de estos profesores impartirán un mínimo de 20 horas lectivas semanales en ese euskaltegi.

d) Que el inmueble reúna los requisitos técnicos necesarios que garanticen su seguridad, lo cual será acreditado mediante certificado expedido por un arquitecto del Departamento de Cultura.

e) Tener constituidos los órganos de Gobierno a que se refiere la Ley 29/1983 de 25 de Noviembre y el Reglamento de Régimen Interior del Euskaltegi en su caso.

f) Que el titular del Euskaltegi sea propietario de los locales que utilice para estos fines o posea, en su caso, un certificado del propietario que garantice la continuidad de la actividad académica, lo que deberá ser debidamente avalado.

2. La Orden de clasificación del Euskaltegi atribuirá a éste una capacidad máxima que indicará el número máximo de alumnos que podrán recibir simultáneamente enseñanzas en el mismo.

3. Artikulu honetan araututako baldintzak ez betetzeak, Euskaltegiaren pribatu homologatu izatearen onarpena ezeztatzea ekarriko luke. Edo Euskaltegien Erregistrotik Euskaltegi publiko izatearen inskripzioa ezabatzea.

*9. Atala*

1. HABErenak ez diren Euskaltegi Publikoetako irakasleen hautaketa egiteko –HABESEA 25/1983 Legearen 19. artikuluan zehazten den merezimendu-lehiaketa egin ondoren hutsik geratzen diren irakasle-lekuak beetetzeko, alegia–, euskaltegiaren titularrak deialdi publikoa egin eta behar diren frogak jarriko ditu, HABEk horretarako markatuko dituen irizpideei jarraiki. Froga hauek zuzentzen dituen epaimahaian HABEren ordezkari bat izango da gutxienez, Zuzendari Orokorrak izendatua.

2. Bai lehen puntuan aipatutako euskaltegiek, eta bai pribatu homologatuek ere, HABEk ezarritako irizpide akademiko, pedagogiko eta didaktikoak jarraitu behar dituzte.

3. Artikulu honetan araututakoa ez betetzeak, euskaltegiaren pribatu homologatua izateko onarpena ezeztatzea ekar dezake. Edo Euskaltegien Erregistrotik Euskaltegi publiko izatearen inskripzioa ezabatzea.

*10. Atala*

1. HABEren Euskaltegien Erregistroan dauden Euskaltegietatik pasa daitezke HABEren ikuskatzaileak, behar diren aktak jasoz.

Ikustaldi horietan, euskaltegiko irakasleek eskatzen dieten ahulkamendua emango dute, eta Agindu honen araberako baldintzak betetzen diren begiratuko dute. Halaber, euskalduntze eta alfabetatze ikasketarako ezartzen diren programa eta edukien jarraipena egingo dute, eta oro har, HABEren organoek eman ditzaketen aginduak betetzen direla baieztatuko.

Hemen aipatutako zerbait behar bezala beteko ez balitz, Ikuskatzailetzak egoera hori normaltzea gomendatuko dio Euskaltegiko titularrari eta horretarako ematen zaion epean egoera konponduko ez balitz, Agindu honetako 2 eta 3 artikuluetan aipatzen diren Agiriei dagokienean, Euskaltegi horretan ematen diren ikasketak baliogabetzea eta Euskaltegien Erregistroan dagokion idazpena ezabatzea proposatuko dio Ikuskatzailetzak HABEren lehendakariari.

2. HABEk subentzionatzen dituen euskaltegietako urteko balantzea, nominen ordainagiriak eta gainerantzeko kontabilitate-agiriak aztertu ahal izango ditu Ikuskatzailetzak. Irregulartasunik ikusiko balu, hori zuzentzeko eskatuko dio titularrari eta horrela egingo ez balu, emandako subentzioak ezezteatzea proposatuko dio HABEren Lehendakariari.

3. Artikulu honetan aipatzen diren Ikuskatzaileok, HABEren Ikuskatzailetza Saileko partaide izango dira eta HABEren Zuzendari Orokorrak izendatuak.

*11. Atala*

1. Euskaltegi Publiko eta Pribatu homologatuetako irakaslegoak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Magisterioduna, diplomatua edo lizentziatua izatea.

b) EGA edo balio bereko beste tituluren bat edukitzea.

3. El incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente artículo supondrá la revocación de clasificación del Euskaltegi como público o privado homologado.

*Artículo 9*

1. La selección de los Profesores de Euskaltegis Públicos no dependientes de HABE para proveer las plazas de profesores que queden vacantes, una vez convocado el concurso de méritos conforme al artículo 19 de la Ley HABESEA 29/1983, se hará previa convocatoria pública por parte del titular y la realización de las correspondientes pruebas selectivas, que serán calificadas por un Tribunal del que formará parte al menos un representante de HABE designado por el Director General, siendo preceptivo el cumplimiento de las directrices emanadas de los órganos competentes de HABE.

2. Los Euskaltegis a que se refiere el párrafo anterior así como los privados homologados deberán seguir las directrices académicas, pedagógicas y didácticas establecidas por HABE.

3. El incumplimiento de lo dispuesto en el presente artículo podrá dar lugar a la revocación del Euskaltegi como público o como privado homologado.

*Artículo 10*

1. Los inspectores de HABE podrán cursar visitas a los euskaltegis inscritos en el Registro de euskaltegis de HABE, levantando las correspondientes actas.

En sus visitas facilitarán el asesoramiento que las sea solicitado por los profesores del euskaltegi y comprobarán el cumplimiento de los requisitos exigidos por la presente Orden a los euskaltegis, así como el seguimiento de los programas y contenidos establecidos para las enseñanzas de euskaldunización y alfabetización y en general el cumplimiento de las instrucciones dictadas por los órganos competentes de HABE.

En caso de incumplimiento la Inspección instará al titular a la regulación de su situación y en caso de que no se proceda a ello en el plazo que se establezca, propondrá al Presidente de HABE que dicte la invalidez de los estudios que se impartan en el euskaltegi a efectos de los diplomas a que se refieren los artículos 2 y 3 de la presente Orden y la práctica del correspondiente asiento o anotación en el Registro de euskaltegis.

2. La Inspección podrá examinar el balance anual, los justificantes de abono de nóminas y demás documentos contables de los euskaltegis subvencionados por HABE. En caso de que observe irregularidades instará a su titular a que los subsane y en caso de que no se proceda a ello propondrá al Presidente de HABE la revocación de las subvenciones otorgadas.

3. Los Inspectores a que se refiere el presente artículo formarán parte de la Sección de Inspección de HABE y serán nombrados por el Director General de dicho Organismo.

*Artículo 11*

1. El profesorado de los euskaltegis públicos y privados homologados deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Estar en posesión del título de Magisterio o ser diplomado o licenciado universitario.

b) Estar en posesión del diploma de EGA o equivalente.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENAK

*Lehenengoa*

Euskaltegi publiko eta pribatu homologatuentzat 8.1. artikuloko a) atalean aipatutako betebeharrak bi urtez indargabe gelditzen dira Agindu hau indarrean jarriko den unetik hasita. Epe hori jarraian urtebeteko aldiez luzatu ahal izango da gehienez hiru urtetarako HABEren Zuzendari Orokorrak, Euskaltegi bakoitzeko gorabeherak kontutan harturik, emango duen Ebazpenez.

Epe hori eta lehengo paragrafoan aipatutako luzapenak igaroz gero, Euskaltegi guztiek bete beharko dituzte Agindu honetako 8. artikuluaren xedapenak.

*Bigarrena*

Agindu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteren barruan HABEren Zuzendari Orokorraren Ebazpenez egingo da prestaketa frogetarako deialdi bat. Froga hauetara 11.1.a) artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzeke 1984ko Martxoaren 29an helduei euskara irakasteko zentruren batean irakaskuntz lanetan ari diren irakasleak aurkeztu ahal izango dira, behin bakarrik egingo den deialdi honetako ezarriko diren beste baldintzak ere bete beharko dituztelarik. Froga hau gainditzeak ordezkatuko du Agindu honetako 11.1.a) artikuluaren eskakizuna.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean indarrean sartzen den Agindu hau, garatu eta aplikatzeko baimena ematen zaio HABEren Zuzendari Orokorrari.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera*

Los requisitos a que se refiere el apartado a) del artículo 8.1. para los euskaltegis públicos y privados homologados queda en suspenso por un período de dos años a partir de la entrada en vigor del presente Decreto. Dicha suspensión podrá ser ogada por períodos sucesivos de un año de duración hasta un máximo de tres más por Resolución del Director General del HABE para euskaltegis concretos atendiendo a las circunstancias del caso.

Una vez transcurrido el período de suspensión y en su caso las prórrogas sucesivas a las que se refiere el párrafo anterior, todos los euskaltegis deberán adecuarse a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente Orden.

*Segunda*

El Director General del HABE dictará, en el plazo de la entrada en vigor de la presente Orden, una Resolución convocando pruebas de habilitación para los profesores que estando en activo a 29 de Marzo de 1984 no cumplan los requisitos exigidos en el artículo 11.1.a) de esta Orden. Dichos profesores deberán asimismo reunir cualquier otro requisito que se especifique en dicha convocatoria, que se realizará una vez.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Director General de HABE para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en la presente Orden que entrará en vigor el mismo día del de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**LAN-SAILA**

**1252**

Ekainaren bosteko 156/1984 **DEKRETOA**, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1984 Legeko hauspenen sailkaketa eta zigorrak jartzeko bideak araupetuz.

Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legeko Azken Erabakietatik Seigarrenak esku ematen dio Eusko Jaurlaritzari, Lan-Sailburuaren saloz, hauspenen zermugapenerako, zigortze-bideetarako eta horietarako goradeietarako beharrezko izan daitezen araupideak emateko.

Bere aldetik, aipaturiko Koperatibei buruzko Legeko 67/2 Atalak zera jartzen du: egin daitezen hauspenak, larria, ekonomiazko garrantzia, inori edo bazkideei ekarritako kaltea eta koperatibaren ekonomiazko ahalmena kontutan izanik zigortuko direla.

Horren ondorioz, eta esandako Azken Erabakietako Seigarrenak dakarren agindua beteaz Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legea behar bezala egiteratu ahal izateko, Legeak dakartzan hauspenen nolakoa eta zenbatekoa araupetzea dagokio, eta bai zigorrak jartzeko berarizko arduralaritza-bideak ere.

**DEPARTAMENTO DE TRABAJO**

**1252**

DECRETO 156/1984, de cinco de Junio, por el que se regula la calificación de las infracciones de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas y el procedimiento de imposición de sanciones.

La Disposición Final Sexta de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, remite la regulación de las normas necesarias en relación con la calificación de las infracciones, procedimiento sancionador y recursos pertinentes, a las normas que dicte el Gobierno Vasco a propuesta del Consejero de Trabajo.

Por su parte, el artículo 67/2 de la citada Ley de Cooperativas establece que las infracciones serán sancionadas teniendo en cuenta la gravedad de las mismas, su importancia económica, perjuicios ocasionados a terceros o a los socios y la capacidad económica de la Cooperativa.

En consecuencia, y a los efectos de posibilitar la correcta operatividad de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, en cumplimiento del mandato contenido en la referenciada Disposición Final Sexta, procede regular la tipificación y cuantificación de las infracciones del contenido de la Ley, así como el procedimiento administrativo especial de imposición de sanciones.